




Burtsa-artekariaren bulegaria

ARTHUR CONAN DOYLE

itzulpena:

Rebeca Fernández Rueda

Nahia Kalparsoro Urrutikoetxea

María González Ugalde

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Burtsa-artekariaren bulegaria

itzulpena:

Rebeca Fernández Rueda

Nahia Kalparsoro Urrutikoetxea

María González Ugalde

Ezkondu eta gutxira erosi nuen kontsultategi bat Paddington barrutian. Farquhar jaun zaharrak, zeinari erosi nion, garai batean kontsultategi orokorra izan zuen. Baina adinaren eta San Bitoren dantzaren antza zuen gaitz baten ondorioz, bezeriak asko egin zuen behera. Bezeroek, naturalki, besteak sendatu nahi duen horrek lehenik bere burua osasuntsu izan behar duen printzipioari jarraitzen dio, eta mesfidantzaz begiratzen dio sendatzeko ahalmenak dituen baina droga gehiegi hartu dituen gizonari. Beraz, nire aurrekoa ahultzen zihoan heinean, bere kontsultategiak ere behera egiten zuen, eta berari erosi nionean, urteroko bezeroen kopuruak mila eta berrehunetik hirurehun baino apur bat gehiagora jaitsi zen. Alabaina, uste ona nuen neure gaztaroan eta energian, eta ziur nengoen oso urte gutxi barru negozioa beti bezain arrakastatsua izango zela.

Kontsultategia neure gain hartu eta hiru hilabetez oso sartuta egon nintzen lanean. Oso gutxi ikusten nuen nire lagun Sherlock Holmes, Baker Street bisitzeko lanpetuegi nengoelako, eta bera nekez joaten zelako inora, negozio profesionalengatik ez bazen. Harritu nintzen, beraz, ekaineko goiz batean, gosaldutik ondoren Britainia Handiko Mediku Egunkaria irakurtzen ari nintzela, kaleko ateko txilina entzun nuenean, eta ostean aspaldiko lagunaren ahotsaren tonu ozen eta nolabait karrankaria.

—A, ene Watson maitea —esan zuen, gelan sartuz—. Asko pozten nau zu ikusteak! Uste ona dut Watson andrea Lauren Seinalearen abenturak eragindako zirraratxoak gainditu dituela.

—Eskerrik asko, biok oso ondo gaude —esan nion eskua dardarka astinduz.

—Eta espero dut, gainera —jarraitu zuen berak, kulunkaulkian eseriz—, medikuntza orokorrari buruzko ardurek ez dutela guztiz ezabatu gure arazo deduktibo txikiekiko izaten zenuen interesa.

—Alderantziz —erantzun nion—. Bart gauean, hain justu, nire iruzkin zaharrak aztertzen ibili nintzen, eta gure iraganeko zenbait emaitza sailkatzen.

—Zure bilduma itxiko ez duzun uste ona daukat.

—Inola ere ez. Horrelako esperientzia batzuk gehiago bizitzea besterik ez nuke nahi.

—Gaur, adibidez?

—Bai, gaur, nahi baduzu.

—Eta Birmingham bezain urrun dagoen leku batean?

—Zalantzarik gabe, hala nahi baduzu.

—Eta kontsultategia?

—Nire bizilaguna den mediku batenaz arduratzen naiz bera ez dagoenean. Bera beti dago faborea itzultzeko prest.

—Aha! Ezer ez liteke hobe izan —esan zuen Holmesek, bere aulkian etzanda eta niri arretaz begira, betazal erdi itxiekin—. Azkenaldian ondoezik egon zarela antzematen dut. Udako hotzeriak beti izaten dira pixka bat gogorrak.

—Hotzeri baten eraginez etxean egon nintzen hiru egunetan pasa den astean. Uste nuen, hala ere, aztarna guztiak desagertu zirela.

—Beraz, oraindik bazaude gaixorik. Izugarri sendo ikusten zaitut.

—Nola jakin duzu, orduan?

—Ene lagun maitea, nire metodoak ezagutzen dituzu.

—Ondorioztatu duzu, orduan?

—Noski.

—Nola?

—Zure txapinei erreparatuz.

Soinean neramatzan txarol berriei begiratu nien.

—Nola arraio... —hasi nintzen esaten, baina Holmesek nire galderari erantzun zion nik galdetu baino lehen.

—Zure txapinak berriak dira —esan zuen—. Ezin dute aste gutxi batzuk baino zaharragoak izan. Une honetan aurkezten ari dizkidazun zolak pitin bat kiskalduta daude. Une batez pentsatu dut agian busti direla eta lehortzerako orduan erre direla. Baina oinbularretik gertu dendariaren hieroglifikoak dituen paperezko orri biribil txiki bat dago. Hezetasunak hori kenduko luke, nola ez. Zu orduan, oinak luzatuta suari zuzenduta egon zara, eta hori guztiz osasuntsu dagoen gizon batek ere nekez egingo luke ekain hezean ere.

Holmesen arrazoibide guztien antzera, honek ere, behin azalduz gero, oso sinplea zirudien. Berak nire aurpegieran pentsamendua irakurri zidan eta bere irribarreak mingostasun kutsua hartu zuen.

—Hori azalduz gero neure burua salatuko dudalako susmoa daukat —esan zuen.

—Kausarik gabeko emaitzak askoz ikusgarriagoak dira. Birminghamera etortzeko prest zaude, orduan?

—Zalantzarik gabe. Zein da kasua?

—Trenean entzungo duzu dena. Nire bezeroa kanpoan dago lur orotako batean. Berehala etor zaitezke?

—Une batean—. Ohar bat idatzi nion bizilagunari, lasterka igo nintzen kontua emazteari azaltzera, eta Holmesekin bat egin nuen atarian.

—Zure bizilaguna medikua da —esan zuen buruarekin keinua eginez letoizko plakari.

—Bai, kontsultategi bat erosi zuen, nik bezala.

—Zahar bat?

—Nirearen berdin-berdina. Biak egon dira hemen etxeak eraiki zirenetik.

—Ah! Orduan, bietako onena lortu zenuen.

—Hori uste dut nik. Baina nola dakizu?

—Urratsengatik, ene mutila. Zureak bereak baino hiru hazbete sakonagoak dira. Baina taxian dagoen jaun hau nire bezeroa da, Hall Pycroft jauna. Utz iezadazu bera aurkezten. Presa eman zaldiari, trena hartzeko denbora eskasa dugu eta.

Aurkitu nuen gizona gazte gihartsu bat zen, aurpegi egiati eta zintzoa eta bibote txiki, labur eta horia zuena. Oso kapela luze distiratsua eta traje beltz soil dotore bat zeramatzan soinean. Horrek guztiak bera zen bezalako pertsona baten irudia ematen zion: hiriko gazte azkar bat, “cockney” deritzoten klasekoa, zeinak guri gure erregimentu-boluntario apartak ematen dizkigun, eta uharte horietan inor baino atleta eta kirolari hoberik ez dituen.

Bere aurpegi biribil eta gorrixka berez alaia zen, baina iruditzen zitzaidan aho-bazterrak era erdi komiko batean minak behera begira zeudela. Halere, lehen mailako gurdian Birminghamerainoko gure bidea hasita zegoen arte, ez nintzen gai izan bera Sherlock Holmesengana bideratzeko izan zuen arazoaz jabetzeko.

—Hirurogeita hamar minutuko lasterketa garbia dugu hemen —adierazi zuen Holmesek—. Hall Pycroft jauna, nire lagunari zure esperientzia oso interesgarria niri bezala kontatzea nahi dut, edo are xehetasun gehiagorekin, ahal bada. Oso erabilgarria izango zait gertakizunen segida berriz entzutea. Kasu honek, Watson, zerbait berezia izan dezake, edo agian ez, baina, gutxienez, biok hain gustuko ditugun ezaugarri ezohiko horietako batzuk ditu. Orain, Pycroft jauna, ez zaitut berriz moztuko.

Gure lagun gazteak begiak dardarka begiratu zidan.

—Istorioaren okerrena zera da, — esan zuen berak— bere burua nahasita duen ergel bat bezala aurkezten naizela. Jakina guztia ondo atera litekeela, eta ez dakit nola egin ahal izango nukeen bestela. Baina nire sehaska galdu badut ezer trukean jaso gabe, zeinen biguna izan naizen sentituko dut. Ez naiz oso ona istorioak kontatzen, Watson jauna, baina hori nirekin horrelakoa da:

—Draper's Gardens-ekoa den Coxon & Woodhouse's-en lan egiten nuen, baina udaberriaren hasieran konpainiak arazoak izan zituen Venezuelako maileguaren eraginez, zalantzarik gabe gogoratuko duzuen bezala. Bost urte egon nintzen haiekin, eta Coxon zaharrak eman zidan gomendio gutuna zoritxarra etorri zenean. Baina, jakina, gu langileok nora jo ez genekiela geunden, hogeitazazpiok. Han-hemenka saiatu nintzen, baina beste morroi asko zeuden nire egoera berean, eta hori luzarorako izotzaldi bikaina zen.

Astean hiru libera irabazi nituen Coxon's-en, eta haietako hirurogeita hamar inguru aurreztu nituen, baina laster hortik ateratzeko ahaleginak egin nituen. Azkenetan nengoen eta ia ezin nituen aurkitu iragarkiei erantzuteko zigiluak edo haiei itsasteko gutun-azalik. Botak gastatuta nituen bulegoko eskailerak igotzearen ondorioz, eta inoiz baino urrutiago ikusten nuen neure burua lanpostu bat lortzetik.

—Azkenean Mawson & Williams'-en lanpostu huts bat ikusi nuen, Lombard Street-eko burtsa-artekaritza enpresa handia. Ausartzen naiz esatera E. C. ez datorrela zurekin bat, baina esan diezazueket Londreseko etxerik aberatsenari buruz ari garela.

Iragarkiari gutun bidez baino ezin zitzaion erantzun. Nire gomendio gutuna eta lan-eskaera bidali nituen, baina lanpostua lortzeko itxaropen eskasarekin. Erantzuna jaso nuen, zeinak zioen hurrengo astelehenean neure burua aurkezten banuen, berehala hartuko nituzkeela nire betebeharrak nire gain, baldin eta nire itxura egokia bazen. Inork ez daki nola funtzionatzen duten gauza horiek. Batzuk esaten dute zuzendariak eskaera mordoaren azpian eskua sartu eta ateratzen den lehena hartzen duela. Edonola ere, nire sarrera izan zen orduan eta ez naiz inoiz hain pozik sentitu. Asteroko soldata libera bat baino gehiagokoa zen eta betebeharrak Coxon's-en nituen haina ziren.

—Eta orain negozioaren zati bitxira heldu naiz. Hampstead bidean nengoen, Potter's Terrace-n, 17. zenbakian. Tira, hitzordua adostu nuen arratsalde horretan bertan erretzen ari nintzen, ugazabandrea niri zuzendu zenean “Pinner, finantza-agentea” inprimatuta zuen txartel batekin. Ez nuen ordura arte inoiz bere izena entzun eta ezin nuen imajinatu zer nahi izango zuen berak nirekin; baina, nola ez, ugazabandreari bera azaldu zedila eskatu nion. Orduan sartu zen tamaina ertaineko gizona. Beltzak zituen ilea, begiak eta bizarra, eta sudur distiratsua zuen. Gauzak modu azkarrean egiten zuela ematen zuen eta zorrotz mintzo zen, denboraren balioa ezagutzen duen gizon baten antzera.

—Hall Pycroft jauna, zuzena da? —esan zuen.

—Bai, jauna —erantzun nion, aulki bat bere aldera bultzatuz.

—Azkenaldian Coxon & Woodhouse's-en kontratua sinatu duzu?

—Bai, jauna.

—Eta orain Mawson's-en lan egiten duzu.

—Hori da.

—Tira —esan zuen— kontua da zure finantza-gaitasunari buruzko zenbait istorio benetan ezohikoak entzun ditudala. Parkerrez gogoratzen zara, Coxon-en zuzendari ohia? Berak beti hitz egiten du ondo zutaz.

—Jakina poztu ninduela hori entzuteak. Beti izan nintzen nahiko azkarra bulegoan, baina ez nuen inoiz espero Hirian nitaz horrela hitz egingo zutenik.

—Memoria ona duzu? —galdetu zuen berak.

—On samarra —erantzun nion, apalki.

—Merkatuarekin harremanetan egon zara lan egin gabe egon zaren bitartean? —galdetu zuen.

—Bai. Burtsako hartu-emana irakurtzen dut goizero.

—Orduan horrek benetako interesa erakusten du! —oihukatu zuen.

—Hori da aurrera egiteko bidea! Ez zaizu axola nik zu testatzea, ezta? Utzi ikusten. Nola daude Ayrshires motatako behiak?

—Ehun eta sei eta laurden batetik ehun eta bost eta zazpi-zortzirenetara arte.

—Eta Zeelanda Berria nola dago?

—Ehun eta lau.

—Eta Broken Hills britainiarra?

—Zazpitik zazpi-seira arte.

—Zoragarria! —oihukatu zuen, eskuak gora zituelarik—. Hau nahiko bat dator entzun izan dudan guztiarekin. Ene mutila, ene mutila, onegia zara Mawson's-en bulegari izateko!

Ateraldi honek nahiko harritu egin ninduen, pentsatu dezakezuen bezala.

—Tira —esan nuen— besteek ez dute zuk nitaz antza duzun hain irudi ona, Pinner jauna. Askok borrokatu behar izan nuen postu hau lortzeko, eta oso pozik nago edukitzeaz.

—Ba, motel; gora egin behar zenuke. Ez zaude zure benetako eremuan. Orain nirekin nola egiten den esango dizut. Eskaintzeko dudana gutxi da zure gaitasunari erreparatzen badiogu, baina Mawson-enarekin konparatuta, aldea izugarria da. Utz iezadazu ikusten. Noiz zoaz Mawson's-era?

—Astelehenean.

—Kar, kar! Apustu egingo nuke ez zarela hara inondik ere joaten.

—Mawson's-era ez joateko?

—Ez, jauna. Egun horretarako zu Franco-Midland Hardware sozietate mugatuko zuzendaria izango zara. Ehun eta hogeita hamalau sukurtsal izango dituzu Frantziako hirietan eta herrietan, baita Bruselan bat eta beste bat San Remon ere.

Horrek arnasa kendu zidan.

—Ez dut inoiz horretaz entzun —esan nion.

—Oso ziurrenik ez. Isilpean gorde da, izan ere, kapital guztia pribatuko harpidetuta zegoen, eta gauza onegia da publikoarekin konpartitzeko. Nire anaia, Harry Pinner, sustatzailea da, eta batzordearekin bat egiten du zuzendari nagusi izendatu ondoren. Berak bazekien nik honen berri nuela, eta gizon on bat merke hartzeko eskatu zidan. Gizon gazte eta anbiziotsu bat, bat-batekotasun handiarekin. Parkerrek zutaz hitz egin

zuen, eta horrek ekarri nau hona gaur gauean. Bostehun besterik ezin dizkizugu eskaini hasteko.

—Urtean bostehun! —oihu egin nuen.

—Hori hasieran baino ez; baina zure ordezkariak egindako negozio guztien ehuneko bateko komisio behinena izango duzu, eta nire hitza duzu hori zure soldata baino gehiago izango dela.

—Baina ez dakit ezer hardware-ari buruz.

—Hara, ene mutila; zifrak ezagutzen dituzu.

Buruak burrunba egin zidan, eta nekez eseri ninteke aulkian. Baina bat-batean zalantza egiten hasi nintzen.

—Argia izan behar dut zurekin —esan nion—. Mawsonak bakarrik berrehun ematen dizkit, baina Mawson fidagarria da. Orain, benetan, hain gutxi dakit zure enpresari buruz, ezen...

—A, argia, argia! —oihukatu zuen, estasiaren moduko bozkarioan— Guretzako gizona zara, hain justu. Zuri buruz ez da hitz egin behar, eta zuzen zaude, gainera. Orain, hona hemen ehun libako billetea, eta uste baduzu negozioak egin ditzakegula, gorde ezazu zure poltsikoan zure soldataren aurrerakin moduan.

—Hori itzela da —esan nuen—. Noiz hartu behar nituzke nire gain nire eginkizun berriak?

—Egon zaitez bihar ordu batean Birminghamen —esan zuen—. Nire poltsikoan nire anaiarengana zuzenduko zaituen ohar bat dut. Bera topatuko duzu Corporation Street-en, 126b zenbakian. Bertan enpresako aldi baterako bulegoak daude. Jakina, berak zure hitzordua baieztatu behar du, baina, sinetsiezadazu, ondo joango da.

—Benetan, nire esker ona nola adierazi apenas dakit, Pinner jauna —esan nuen.

—Ez duzu eskerrak eman beharrik, ene mutila. Merezi duzuna besterik ez duzu lortu. Gauza txiki bat edo bi (formalitate hutsak) daude, zurekin adostu behar ditudanak. Paper bat duzu hor zure alboan. Mesedez, idatzi bertan “Erabat prest nago Franco-Midland Hardware sozietate mugatuko enpresa-zuzendari gisa jarduteko, 500 £ko gutxieneko soldatarekin.”

—Berak esan bezala egin nuen, eta papera bere poltsikoan sartu.

—Badago beste xehetasun bat —esan zuen—. Mawson’s-i dagokionez, zer egiteko asmoa duzu?

—Nire bozkarioan, Mawsons-ez guztiz ahaztuta nengoen. Idatziko diet eta dimisioa aurkeztuko dut —esan nuen.

—Zehazki, nik zuk egitea nahi ez dudana. Eztabaida bat izan nuen zugatik Mawson’s-eko zuzendariarekin. Berarengana joan nintzen zutaz galdetzera, eta bera oso oldarkor egon zen. Enpresako zerbitzutik aldentzen ari nintzaizula leporatu zidan, eta horrelakoak. Azkenean, nire senetik atera nintzen.

—Gizon onak nahi badituzu, ondo ordaindu beharko zenituzkeen —esan nuen.

—Berak nahiago luke gure lansari txikia izatea zure handia baino —esan zuen.

—Bost libra bat apustu egiten dizkizut —esan nion —nire eskaintza duenean ez duzula berriz bere berri izango.

—Eginda! —esan zuen berak— Miseriatik atera genuen, eta ez gaitu hain erraz utziko.

—Horiek izan ziren bere hitzak, hain zuzen.

—Doilor lotsagabe halakoa! —oihu egin nuen—. Ez dut inoiz bera nire bizitzan ikusi. Zergatik behar nuke bera batere kontuan izan? Zuk nik idazterik nahi ez baduzu, ez dut egingo, zalantzarik gabe.

—Ongi! Hori promesa bat da —esan zuen, bere aukitik altxatuz.

—Beno, pozik nago hain gizon ona anaiarentzat lortu izanaz. Hona hemen zure ehun liberako aurrerakina, eta hona hemen gutuna. Apuntatu ezazu helbidea, 126 b Corporation Street, eta gogoratu zure hitzordua bihar ordu batean dela. Gabon, eta izan dezazula merezi duzun zorte guztia!

—Hori da gure artean jazotako guztia, gogoratu ahal dudanaren arabera. Imajina dezakezu, Watson jauna, zeinen pozik nengoen horrelako zori on apur batekin. Gauaren erdia eman nuen ideia hori besarkatuz, eta hurrengo egunean Birminghamerainoko trenean nengoen, hitzordura oso garaiz eramango ninduen. Nire gauzak New Street-eko hotel batera eraman nituen, eta orduan emandako helbiderantz abiatu nintzen.

—Nire hitzordurako ordu laurden bat falta zen, baina pentsatu nuen horrek ez zuela diferentziarik egingo. 126b bi denda handiren arteko igarobidea zen, harrizko eskailera bihurtunetsu baterantz zuzentzen zuena. Hortik pisu asko zeuden, enpresek zein gizon profesionalek alokatuta. Maizterren izenak hormen behealdean margotuta zeuden, baina Franco-Midland Hardware sozietate mugatuaren izena ez zegoen. Bihotza dardarka nuen, eta neure buruari galdetzen ari nion ea guztia iruzur bat zen ala ez, gizon bat niregana zuzendu eta nire izena esan zuen arte. Ziur asko, aurreko gauean ikusi izan nuen morroia zen. Gorpuzkera eta ahots bera zuen, baina bizarra txukun zerman moztuta eta bere ilea argiagoa zen.

—Hall Pycroft jauna zara? — galdetu zuen.

—Bai — esan nion.

—O! Zu espero nuen, baina zure ordua baino pixka bat lehenago etorri zara. Nire anaiaren ohar bat jaso dut goizean, zeinetan asko laudatzen zaituen.

—Bakarrik bulegoen bila nenbilen zu etorri zaren arte.

—Oraindik ez dugu gure enpresak gora egitea lortu, joan den astean aldi baterako lokal hauek bakarrik bermatu ditugulako. Zatoz gora nirekin, eta gaiari buruz hitz egingo dugu.

Berari jarraitu nion oso eskailera altu baten goialdera arte, eta han, justu arbelen azpian, hautsez estalitako gela huts pare bat zegoen, alfonbrarik eta errezelik gabe. Bertara zuzendu ninduen. Bulego handi bat izango zela pentsatu nuen, mahai distiratsuekin eta bulegarien errenkadekin, ohituta nengoen bezala. Eta esango nuke zuzenean begira geratu nintzela aulki biei eta mahai txiki bati, zeinak, liburu nagusi batekin eta zakarrontzi batekin batera, altzari guztiak ziren.

—Ez gogogabetu, Pycroft jauna —esan zuen nire ezagun berriak, nire aurpegiaren luzera ikusiz—. Erroma ez zen egun batean eraiki, eta diru asko dugu, bulegoetan asko nabaritzen ez den arren. Arren, eseri, eta eman iezadazu zure gutuna.

Berari eman nion, eta arreta handiz irakurri zuen.

—Badirudi oso inpresio ona izan duzula nire anai Arthurengan —esan zuen—; eta badakit bera epaile nahiko zuhurra dela. Berak Londresen izenean zin egiten du, badakizu; eta nik Birminghamen izenean; baina aldi honetan bere aholkuari jarraituko diot. Arren, hartu zeure burua zalantzarik gabe kontratatutzat.

—Zeintzuk dira nire egitekoak? —galdetu nuen.

—Azkenean Pariseko biltegi handia kudeatuko duzu, Frantziako ehun eta hogeita hamalau agenteren dendak baxera ingelesez beteko dituen. Erosketa aste batean amaituta egongo da, eta bitartean zu Birminghamen geratuko zara eta probetxuzko gauzak egingo dituzu.

—Nola?

Erantzun gisa, liburu gorri handi bat atera zuen tiradera batetik.

—Hau Pariseko kale-izendegia da —esan zuen— jendearen izenen ostean lanbideak ditu. Zuk hura etxera eramatea nahi dut, eta hardware-saltzaile guztiak markatzea, haien helbideekin. Horiek izatea niretzat oso erabilgarri litzateke.

—Ziurrenik isilpeko zerrendak egongo dira, ezta? —iradoki nuen.

—Ez dira fidagarriak. Haien sistema gureaz bestelakoa da. Eutsi horri, eta eman iezazkidazu zerrendak eskura astelehenean, hamabietan. Egun ona izan, Pycroft jauna. Grina eta adimena erakusten jarraitzen baduzu, enpresa maisu ona izango da zuretzat.

Hotelera itzuli nintzen, liburu handia besopean, eta nire bularrean oso sentimendu kontrajarriak nituelarik. Alde batetik, zalantzarik gabe engaiatu nintzen eta ehun libra neuzkan poltsikoan. Bestetik, nire ugazaben lanpostuari dagokionez, irudi txarra eman zidaten bulegoen itxurak, hormako izenik ezak eta negozio-gizon bati arraroak irudituko litzaiokeen beste gauza batzuk.

Hala ere, zer gerta ere, nik dirua banuen, beraz, lanean hasi nintzen. Igande osoan gogor egin nuen lan, eta, hala ere, astelehenerako H-ra iritsi nintzen bakarrik Enplegatzailearengana joan nintzen, desmuntatua zirudien gela berean topatu nuen, eta esan zidan asteazkenera arte jarraitzeko, eta gero berriz etortzeko. Asteazkenean oraindik amaitu gabe zegoen, beraz, ostiralera arte lanean jarraitu nuen —alegia, atzo—. Orduan Harry Pinner jaunari ekarri nion.

—Eskerrik asko —esan zuen —beldur naiz zereginaren zailtasuna gutxietsi nuen. Zerrenda hau oso lagungarria izango zait.

—Denbora pixka bat behar izan dut —esan nion.

—Eta orain —esan zuen— denden zerrenda bat egitea nahi dut, denek baxera saltzen baitute.

—Oso ongi.

—Eta bihar arratsaldean etor zaitezke, zazpitan, eta esan iezadazu nola doakizun. Ez ezazu lan gehiegi egin. Ez litzaizuke gaizki etorriko gauez ordu pare bat igarotzeak Eguneako Musika Aretoan hainbeste lan egin ondoren —. Barre egin zuen hitz egiten zuen bitartean, eta hotzikaraz ikusi nuen bere ezkerraldeko bigarren hortza urrearekin gaizki enpastatua zegoela. Sherlock Holmesek pozarren eskuak igurtzi zituen, eta harrituta begiratu nion gure bezeroari.

—Harrituta egongo zara, Watson doktorea; horrela da —esan zuen—.Londresen beste tipoarekin hitz egiten ari nintzenean, eta Mawson's-era ez nindoalako barrez ari zenean, konturatu nintzen hagina modu berean enpastatu ziotela. Bi kasuetan urrearen distirak arreta deitu zidan. Hori ahotsarekin eta irudiarekin konparatzean, berdinak izanik, eta kontuan izanda labana edo ileorde batekin alda daitezkeen gauzak direla, ez nuen zalantzarik izan gizon bera zela. Noski, bi anaiek elkarren antza izatea espero da, baina ez hagin bera modu berean enpastatuta izatea. Erreberentzia batekin agurtu ninduen eta neure burua kalean ikusi nuen, neure buruaren edo oinen gainean eusten ari naizen jakin gabe. Nire hotelera itzuli nintzen, burua ur hotzetan sartu eta pentsatzen saiatu nintzen. Zergatik bidali ninduen Londresetik Birminghamera? Zergatik iritsi zen ni baino lehen? Zergatik idatzi zion gutun bat bere buruari? Niretzat gehiegi zen, eta ez nion zentzurik aurkitzen. Eta orduan, bat-batean, bururatu zitzaidan niretzat iluna zena oso argia izan zitekeela Sherlock Holmes jaunarentzat. Hirira gaueko trenean iritsi eta gaur goizean biak nirekin Birminghamera ekartzeko denbora izan dut.

Etenaldi bat izan zen burtsako artekariaren esperientzia harrigarria amaitu ondoren. Orduan Sherlock Holmesek zeharka begiratu zidan, kuxinen gainean etzanda, aurpegi atsegin eta aldi berean kritiko batez, Comet ardo bati bere lehen zurrupada eman dion aditu batek bezala.

—Ondo samar, Watson, ezta? —esan zuen— Nire gustukoak diren gauza batzuk daude. Uste dut nirekin ados egongo zarela honetan: Arthur Harry Pinner jaunarekin aldi baterako Franco-Midland Hardware sozietate mugatuko bulegoetan elkarriketa bat izatea esperientzia interesgarri samarra izango litzatekeela biontzat.

—Baina nola egin dezakegu? —galdetu nuen.

—O, oso erraz —esan zuen Hall Pycroftek, irribarrez—.Nire bi lagun zarete, bizileku baten beharra duzenak, eta zuzendari kudeatzailearengana eramatea baino gauza naturalagorik egon daiteke?

—Hori da, jakina —esan zuen Holmesek—. Gizonari begiratu beharko nioke, eta ea bere jokaldia ulertzeko gai naizen ikusi. Zein trebetasun dituzu, ene lagun, zure zerbitzuak hain baliotsu egingo dituenak? Ala baliteke...? — Bere atzamarrak hozka egiten hasi eta leihotik begira jarri zen emoziorik erakutsi gabe, eta Kale Berrian egon ginen arte apenas entzun genion beste ezer esaten.

Arratsalde horretako zazpietan gu hirurok oinez ari ginen, Korporazio Kaletik behera enpresako bulegoetara.

—Ez du zentzurik hain garaiz iristeak —. Antza, bera bakarrik doa horra ni ikustera, esan duen orduan lekua hutsik egoten baita.

—Hori iradokitzailea da —azpimarratu zuen Holmesek.

—Jainkoaren izenean, esan egin nizun! —oihu egin zuen bulegariak— Hor dago bera, gure aurrean!

Errepidearen beste aldean azkar mugitzen ari zen ondo jantzitako gizon txiki samar eta goibel bat seinalatu zuen. Gizona ikusten ari ginen bitartean, hura arratsaldeko egunkariaren azken alea garrasika iragartzen ari zen mutil bati begira zegoen. Bat erosi

zion, taxien eta autobusen artean korrika. Gero, hari bere eskuan eutsiz, atari batetik desagertu zen.

— Hortik doa! —oihu egin zuen Hall Pycroftek— Horiek dira enpresaren bulegoak, bera sartu den horiek. Etorri nirekin, eta ahal bezain pronto konponduko dut.

Berari jarraituz, bost solairu igo genituen, erdi zabalduta zegoen ate batekin topo egin genuen arte. Gure bezeroak atean jo zuen. Barrutik ahots batek sartzeko eskatu zigun, eta altzairurik gabeko gela huts batean sartu ginen, Hall Pycroftek deskribatu zuenaren bezalakoa. Mahaian eserita kalean ikusitako gizona zegoen, arratsaldeko egunkaria bere aurrean irekita, eta gu bioi begiratu zigunean iruditu zitzaidan ez niola inoiz horrelako atsekabea erakusten zuen aurpegi bati begiratu. Eta nahigabeaz harantzagoko zerbait ere bazen: bizitzan zehar oso gizon gutxiei datorkien izua. Bere kopetak izerdiaren eraginez distiratzten zuen, bere masailak arrain baten sabela bezain zuriak ziren, eta bere begirada basatia eta sarkorra zen.

Bere bulegariari begiratu zion ezagutuko ez balu bezala, eta gure gidariaren aurpegiak erakusten zuen harriduragatik jabetu ahal izan nintzen hori ez zela inondik ere bere ugazabaren ohiko itxura.

—Gaixorik dirudizu, Pinner jauna! —oihu egin zuen.

—Bai, ez nago oso ondo —esan zuen besteak, baretzeko ageriko ahaleginak eginez, hitz egin baino lehen bere ezpain lehorrak miazkatuz—. Nortzuk dira zurekin ekarri dituzun jaun hauek?

—Bat Harris jauna da, Bermondseykoa, eta bestea Price jauna da, hiri honetakoa —esan zuen gure bulegariak, zuhurki—. Nire lagunak dira, eta eskarmentu handiko jaunak, baina duela gutxi lana galdu dute, eta agian zuk konpainian haientzako lanpostu huts bat bilatu ahal diezun itxaropena dute.

—Oso ziurrenik! Oso ziurrenik! —egin zuen oihu Pinner jaunak irribarre izugarri batekin— Bai, ez dut zalantzarik zuentzako zerbait egin ahal izango dudala. Zein da zure esparru zehatza, Harris jauna?

—Kontularia naiz —esan zuen Holmesek.

—A, bai, hori bezalako zerbait behar dugu. Eta zu, Price jauna?

—Bulegaria —esan nuen.

— Enpresan kabitutza zaitezkeen uste osoa dut. Ezer adostu bezain laster horren berri emango dizuet. Eta orain, joan zaitezteela erregutzen dizuet. Jainkoarren, utzi bakean!

Azken hitz horiek esaten zituen ahala, ezin izan zuen bere burua lasaitzeko ageriko ahalegin gehiago egin eta guztiz lehertu zen. Holmesek eta biok elkarri begiratu genion eta Hall Pycroftek mahairantz urrats bat egin zuen.

—Ahazten ari zara, Pinner jauna, hemen naizela zugandik zenbait argibide jasotzeko —
esan zuen berak.

—Zalantzarik gabe, Pycroft jauna, zalantzarik gabe —jarraitu zuen besteak tonu bareago batean—. Hemen itxarongo duzu une batez; eta ez dago arrazoirik zure lagunek zurekin ez itxaroteko. Zuen esanetara osorik egongo naiz hiru minutu barru, orain arte izan duzuen pazientzia ez urratzeko—. Aire oso adeitsu batean altxatu zen eta, guri erreberentzia eginez, gelaren beste muturrean zegoen ate batetik irten zen, eta itxi zuen.

—Eta orain zer? —xuxurlatu zuen Holmesek— Gurengandik ihes egiten ari da?

—Ezinezkoa —erantzun zuen Pycroftek.

—Zergatik, ba?

— Ateak barruko gela baterantz ematen du.

—Ez dago irteerarik?

—Bat ere ez.

—Atzo hutsik zegoen.

—Orduan, zertan ari da? Bere portaeran ulertzen ez dudan zerbait dago. Inoiz guztiz izututa dagoen gizon bat egon bada, gizon horren izena Pinner da. Zerk ikaratu dezake hainbeste?

—Berak gu detektibeak garen susmoa du —iradoki nuen.

—Hori da —oihu egin zuen Pycroftek.

Holmesek ezetz egin zuen buruaz. —Ez da zurbildu. Zurbil zegoen gelara sartu garenean —esan zuen—.

—Baliteke...?

Bere hitzak moztu zituen barruko atearen noranzkotik zetorren kask-kask zoli batek.

—Zer arraiio ari da bere atean deitzen? —oihu egin zuen bulegariak.

Kask-kaska berriz entzun zen, eta askoz ozenago. Itxita zegoen ateari adi-adi begira geunden guztiok. Holmesi begiratzen ari nintzela, bere aurpegiera zorrotz bihurtzen ikusi nuen, eta zirrara handiz aurrera makurtu zen. Gero bat-batean borbor apal bat entzun zen eta danbor hots kementsu bat zuraren gainean....

Holmesek kezkatuta egin zuen jauzi eta atea bultzatu zuen. Berari jarraituz, aterantz bota genuen geure burua, geure pisu guztiarekin. Gontz batek karraska egin zuen, gero bestea, eta danbada batekin atea beheara jausi zen. Bere gainetik arin igaro ginen eta barruko gelan sartu. Hutsik zegoen.

Baina bakarrik une batez egon ginen oker. Izkina batean, irten ginen gelatik hurbil zegoen ertzean, bigarren ate bat zegoen. Holmesek harenganantz jauzi egin eta ireki zuen. Beroki bat eta txaleko bat zeuden zoruan, eta atearen atzeko kako batetik, lepoaren inguruan bere galtza-uhalak zituela, Franco-Midland Hardware Konpainiako zuzendari kudeatzailea esekita zegoen.

Belaunak tolestuta zituen, burua bere gorputzarekiko angelu izugarri batean zegoen esekita, eta bere taloien zaratak atearen kontra gure elkarrizketa moztu zuen. Une batean gerritik heldu eta eutsi egin nion, Holmesek eta Pycroftrek larruazalaren tolesdura zurien artean desagertutako banda elastikoak askatzen zituzten bitartean. Gero, bera beste gelara eraman genuen. Bertan, buztinaren koloreko aurpegiarekin zetzan bera, ezpain ubelak mugituz arnasa hartu eta bota ahala (bost minutu lehenago baizik izan zen guztiaren hondakin izugarria).

—Zer uste duzu berari buruz, Watson? —galdetu zuen Holmesek.

Beraren gainean makurtu eta aztertu egin nuen. Bere pultsua ahula eta aldizkakoa zen, baina oraindik arnasa hartzen zuen, eta bere betazalen azpian dar-dar ahul bat nabari zitekeen, azpian begi-globoaren zirrikitu mehe zuria agerian uzten zuena.

—Heriotzatik oso gertu egon da —esan nuen nik— baina biziraungo du. Ireki ezazu leiho hori, eta emadazu ur txanbila.

Lepoa askatu nion, aurpegiaren gainera ur hotza bota nion, eta besoak gorantz eta beherantz mugitu nituen, berak arnasa luze eta naturala bota zuen arte.

—Denbora kontua baino ez da orain —esan nuen, berarengandik aldentzen nintzen ahala.

Holmes atearen alboan zegoen, eskuak galtzen patriketan sakon sartuta eta bekokia bularraren gainean.

—Poliziari orain deitu behar diogula uste dut —esan zuen berak—. Baina aitortzen dut gustatuko litzaidakeela haiek etortzen direnean kasua ebatzita izatea.

—Niretzat erabat misterioa da —esan zuen Pycroftek, buruan hazka eginez—. Zertarako nahi izango zuten ni honaino ekartzea, eta gero...

—Ba! Hori guztia nahiko aski argi dago —esan zuen Holmesek, ezinegonez—. Azken ustekabeko neurriaz ari naiz.

—Gainontzekoa ulertzen duzu, beraz?

—Nahiko argi dagoela uste dut. Zer deritzozu, Watson?

Sorbaldak altxatu nituen.

—Aitortu behar dut ez dudala ezer ulertzen —esan nuen nik—. O, ziurrenik hasieran gertaerak aintzat hartzen badituzu, ondorio batera baino ezin zaituzte eraman.

—Zer deritzozu?

—Tira, guztiaren muina bi punturen eskuetan dago. Lehena Pycroftek aitorpen bat idaztea da, zeinaren bidez konpainia zentzugabe honetan sartu zen. Ez al duzu ikusten zeinen iradokitzailea den hori?

—Beldur naiz ezetz.

—Tira, zergatik nahi izan zuten berak hori egitea? Ez bakarrik negozio kontu bat bezala, akordio horiek normalean hitzezkoak baitira, eta ez dago inongo arrazoirik, negozioen aldetik, hau salbuespen bat izateko. Ez al duzu ikusten, ene lagun gaztea, oso arduratuta zeudela zure idazkeraren lagin bat lortzeko, eta ez zutela hori egiteko beste modurik?

—Eta zergatik?

—Horixe. Zergatik? Hori erantzuten dugunean gure arazo txikiarekin aurrera egingo dugu. Zergatik? Arrazoi egoki bat baino ezin da egon. Norbaitek zure idazkera imitatzen ikasi nahi zuen, eta lehenik horren lagin bat eskuratu behar izan zuen. Eta orain, bigarren puntura igarotzen bagara, ohartuko gara batak bestea argitzen duela. Puntu hori Pinnerrek zuk zure lanpostuari uko ez egiteko egindako eskaera da, baina negozio garrantzitsu honen zuzendaria konbentzitu beharra zegoen Hall Pycroft izeneko bat, hark inoiz ikusi izan ez zuena, bulegoan sartzear zegoela astelehen goizean.

—Ai ene! —oihu egin zuen gure bezeroak —zeinen itsu egon naizen!

—Orain idazkerarena ulertzen duzu. Demagun zure ordeztu norbait agertzen dela lanpostu hutserako eta zurearekiko guztiz idazkera ezberdina zuela. Jakina, guztia deskubrituko zen. Baina alproja horrek zu imitatzen ikasi zuen bitartean, eta bere lanpostua, beraz, ziurtatua zegoenean, suposatzen dut bulegoko inork ez zizula inoiz zuri erreparatu.

—Inork ez —egin zuen aiene Hall Pycroftek.

Oso ongi. Jakina, garrantzi handikoa zen zuk hori bi aldiz pentsatzea ekiditea, baita zure bikoitza Mawsonen bulegoan lanean ari zela esango zizun inorekin harremanetan jartzea galaraztea ere. Hori dela eta, zure soldataren aurrerakin galanta eman zizuten, eta Midlands-era bidali zintuzteten, non lan nahiko eman zizuten zu Londresera ez joatea ekiditeko. Han festa zapuztu zenezakeen. Hori guztia nahiko ageriko da.

—Baina zergatik aurkeztuko zuen gizon honek bere burua bere anaiatzat?

—Bada, hori ere aski bistakoa da. Bakarrik haietako bi daude argi eta garbi honetan sartuta. Bestea zure plantak egiten ari da bulegoan. Honako honek lana eskaini zizun gizonaren itxurak egin zituen, eta gero ohartu zen ezin zuela zuretzako ugazaba bat topatu konspirazio honetan hirugarren pertsona bati sartzen utzi gabe. Hori ez zuen egin izan nahi. Bere itxura aldatu zuen ahal izan zuen haina, eta uste ona zuen zuk halabeharrez antzemandako antzekotasuna senideen arteko antzarekin lotuko zenukeela. Baina urrezko betegarriagatik izan ez balitz, ziur aski ez zenukeen inoiz ziria sartzen ari zizuten susmoa izango.

Hall Pycroftek itxita zituen eskuak mugitu zituen airean. —Jainko maitea! —oihu egin zuen— iruzur egin didaten bitartean, zer egiten ari izan da beste Hall Pycroft Mawson's-en? Zer egin behar izango dugu, Holmes jauna? Esan iezadazu zer egin.

—Mawson's-era jo beharko genuke. Larunbatetan hamabietan ixten dute.

—Ez kezkatu. Atezainen edo arduradunen bat egongo da...

—A bai, beti izaten dute hor zinpeko begirale bat, gordetzen dituzten baloreen zaintzarako. Gogoan dut hori hirian entzun nuela.

—Oso ondo; berarengana jo behar izango dugu, eta ea guztia ondo dagoen ikusi, eta zure izena duen bulegari bat hor lanean dihardun. Hori nahiko argi dago; baina hain argi ez dagoena da zergatik alprojetako bat, guk ikusteko moduan, gelatik azkar irten den eta bere burua urkatu duen.

—Egunkaria! —marmar egin zuen gure atzean zegoen ahots batek. Gizona altxatuta zegoen, zurbil eta pattal, begiak noraezean, eta bere eskuek eztarria oraindik inguratzen zuen banda zabal gorri bat igurzten zuten.

—Egunkaria! Noski! —garrasi egin zuen Holmesek, zirrarazko paroxismoan— Zeinen ergela izan naizen! Hainbeste pentsatu dut gure bisitan ezen egunkaria ez den ezta une batean ere nire buruan sartu. Zalantzarik gabe, hor egon behar du koskak.

Mahaian ireki zuen eta oihu egin zuen, garaile.

—Begiratu hau, Watson —egin zuen oihu—. Londreseko egunkari bat da, Arratsaldeko Estan ale goiztiar bat. Hemen dago nahi genuena. Erreparatu izenburuei: “Krimena Hirian. Hilketak Mawson & Williams’-en. Lapurreta ahalegin ikaragarria. Gaizkilearen harrapaketa.” Hemen, Watson, guztiok gaude hori entzuteko arduratuta, beraz, irakurri ezazu hori ozen guretzat.

Egunkarian zuen lekuari begira, ematen zuen hiriko gertaerarik garrantzitsuena izan zela, eta honela zioen:

“Arratsaldean hirian, lapurreta ahalegin batek izan du leku, gizon baten heriotzarekin eta gaizkilearen harrapaketa batekin bukatu duena. Denbora batez Mawson & Williamsek, finantza-konpainia ospetsua, guztira milioi bat libera esterlina baino gehiagoko kopuru handiaren segurtasunaren zaintzaileak izan dira.

Arriskuan zeuden interes handien ondorioz bere gain zuen arduraren hain jakitun zen zuzendaria, ezen kutxa gotorrik onena erabilia izan den, eta begirale armatu bat egon da gau eta egun eraikinean. Antza, Hall Pycroft izeneko bulegari berri bat hasi zen konpainian lan egiten. Pertsona hau, agidanez, Beddington bera da, faltsutzaile eta ebasle ospetsua, zeina, bere anaiarekin batera, bost urteko bortxazko-lan boladatik irten berri den. Nolabait, ez dago argi oraindik, izen faltsu baten azpian bulegoko lanpostu ofiziala lortu zuen, hainbat sarrairen moldea eta lanpostuko ganbera blindatuari eta kutxa gotorrari buruzko ezagutza lortzeko erabili zuena.”

“Ohikoa da Mawson’s-en langileentzat larunbat eguerdian irtetea. Tuson sarjentua, Udaltzaingokoa, harritu samar zegoen, beraz, ordu bata hogeit gutxitan eskaileretan behera alfonbra poltsa bat zuen jaun bat ikusteaz. Susmopean, sarjentuak gizonari jarraitu zion, eta Pollack polizia-agentearen laguntzarekin, erresistentzia etsituenaren ostean, gizona atxilotzea lortu zuen. Argi geratu zen berehala lapurreta ausart eta erraldoi hori egin zutela. Ia ehun mila liberako balioa zuten tren-bonu amerikarrak aurkitu ziren poltsan, meatzeetan eta beste konpainia batzuetan akzio kopuru handia zutenak. Instalazioak aztertuz, zoritxarreko begiralearen gorpua aurkitua izan zen kutxa gotorrik handienez sartuta. Tuson sarjentuaren berehalako esku-hartzeagatik izan ez balitz, gorpua ez zitekeen astelehen goizera arte aurkitua izango. Gizonaren burezorra birrinduta zegoen atzetik jasotako burruntzi baten kolpearen ondorioz. Ezin argiago zegoen Beddingtonek sartzea lortu zuela lekuan zerbait utzi zuen plantak eginez, eta, begiralea erail ostean, azkar arakatu zuen kutxa gotor handia, eta gero bere gorpuarekin alde egin zuen. Bere anaia, zeinak normalean berarekin lan egiten duen, ez da oraindik lan honetan azaldu, baina polizia bera aurkitzeko galdera kementsuak egiten ari dira.”

—Tira, horretan poliziari lana aurreztuko diogu —esan zuen Holmesek, irudi begipetsuari leihotik begira. Giza natura nahasketa arraroa da, Watson. Ikusiko duzu... eta batek ere hainbesteko maitasuna inspiratu dezaketela ezen bere anaiak bere buruaz beste egiten duen... Halere, ekintzara igarotzeko beste aukerarik ez dugu. Medikuek eta biok zaintzan jarraituko dugu, Pycroft jauna, poliziarentzat lekua uzteko adeitasuna baduzu.